


2009 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren Araudia



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

# **2009 MENDIKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA**

## **1 Artikulua- ANTOLAKETA**

**1.1.** Gipuzkoako Automobilismo Federazioak 2009. urterako 2009 Mendiko Gipuzkoako Txapelketari dagozkion ondorengo Txapelketak eta Sariak ezartzen ditu:

- MENDIKO GIDARIEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA
- MENDIKO JUNIOR MAILAKO GIPUZKOAKO SARIA
- MENDIKO IBILGAILU HISTORIKOEN SARIA
- GIPUZKOAKO EMAKUMEZKOEN SARIA

**1.2.** Araudi aplikagarriak, lehentasun hurrenkeraren arabera, ondorengoak izango dira:

- a)** C.D.I. (aplikatzea badagokio).
- b)** Bere kasuan, Espainiako Txapelketako probekiko nahiz hauei dagozkien Araudi Orokorrekiko komunak diren antolaketa-baldintzak.
- c)** Bere kasuan, Espainia 2009ko Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge-ri dagokionean Komunak diren Aginduak.
- d)** Bere kasuan, 2009 Mendiko Espainiako Txapelketari dagokion Araudi Orokorra
- e)** 2009 Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge Euskaldunei dagozkien Aginduak Komunak
- f)** 2009 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Orokorra.
- g)** F.V.A.-ren Mendirako Agindu Orokorrak (aplikatzea badagokio)
- h)** Probari dagokion Araudi Berezia.

## **2. Artikulua- AURKEZTEN DIRENAK**

**2.1.** 1. artikuluan zehaztutako Mendiko Gidarien Gipuzkoako Txapelketa eta Sariak F.V.A.-k emandako eta R.F.E.A.-k Homologatutako gipuzkoar lizentziak dituzten kirolzaleentzat eskuragarri egongo dira. Era berean parte hartu ahal izango dute, baina ez dute punturik lortuko eta ez dute puntuakatarik blokeatuko, bere A.D.N.-k homologatutako eta aurten indarrean dauden beste baimen batzuk dituzten kirolzale orok.

**2.2.** Mendiko Junior mailako Gipuzkoako Sarian 2.1 puntuan deskribatutako baimena duten guztiek parte hartu ahal izango dute, **1984**ko Urtarrilaren 1a eta **1991**ko Abenduaren 31 artean jaiotakoak. Ez dira onartuak izango, lehen aipatutako adinaren eskakizuna beteta, Gipuzkoako Txapelketa ala Lehen mailako Kopa, Sari ala Challenge nahiz maila handiagoren bateko lehenengo 3ren artean sailkatuak izan badira.

## **3. Artikulua- ONARTUTAKO IBILGAILUAK**

**3.1.** 2008 Mendiko Gipuzkoako txapelketarako Proba puntuagarri guztietan ondorengo ibilgailuek parte hartu eta puntuatu ahal izango dute:

**3.1.1.** I. Maila

- N Taldea. (J Eranskineko 254. Art.)
- A Taldea. (J Eranskineko 255 Art.)
- A2 Taldea. (2008 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Nagusiko 3.2. Art.)

- R Taldea. (2008 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Nagusiko 3.3. Art.)
- GT Taldeak
- CM Taldeak
- C3, CN eta 2.000 cc arteko formulen taldea

GR N homologazioa duten edo duela 8 urtetik homologazioa iraungia duten ibilgailuak onartuko dira.

Antolakuntzak eskubidea du bere proban beste talde eta kategoria batzuk onartzeko, betiere bere araudian adierazten badu ez dutela puntuatzen eta ez dutela punturik blokeatzen Gipuzkoako Mendiko Txapelketarako. A taldeari dagozkion segurtasun neurriak bete beharko dituzte ibilgailu hauek, indarrean dagoen CDIko J Eranskinaren arabera.

Antolatzaileak bere proban beste Talde eta maila batzuk onartzeko askatasuna dauka, Betiere bere araudian Mendiko Gipuzkoako Txapelketarako punturik ez lortzeaz gainera puntuak blokeatzen ez dituztela zehazten badu. Ibilgailu hauen segurtasun neurriak "A" Taldeari dagozkionak izango dira, indarrean dagoen C.D.I.-ren J Eranskinari jarraiki.

- 3.2.** A2 Taldeko ibilgailuen definizioa: Talde honetan ondorengo Txapelketa eta Kopetatik datozen ibilgailuak onartuko dira:

- Turismoen Espainiako Txapelketa (1993).
- Super-turismoen Gipuzkoako Txapelketa (II Maila F.I.A., J eranskineko 262. Art.).
- Zirkuituetako eta Mendiko Monomarka Kopak.

Ibilgailu hauek bere partaidetza urteari dagokion araudi berezia errespetatu beharko dute.

Erreferentzia-urtea probetan bere inskripzioa burutzerakoan jakinarazi beharko da.

- 3.3.** R Taldeko ibilgailuen definizioa:

Serie eran ekoiztutako ibilgailuan (I. Maila), J Eranskineko 251.2.1.1. Artikuluan definitzen denari jarraiki, iraungitako F.I.A. homologazio-Fitxarekin, Taldearen araudia errespetatuz zeinetan homologatuta egon baitziren.

- 3.4.** Mendiko Junior mailako Gipuzkoako Sarian 1600 cm<sup>3</sup>-rainoko 1 eta 2. Mailako ibilgailuak soilik onartuko dira.

- 3.5.** Puntuaketari dagokionean, puntuatzeko onartutako ibilgailuak ondorengo zilindrada motetan banatuko dira:

<b>2009ko EUSKAL TXAPELKETETAKO MAILAK</b>			
<b>Maila</b>	<b>Gr.N</b>	<b>Gr.A-Gr.R-R1-R2-R3</b>	<b>A2 - CM - Klasikoak</b>
<b>1</b>	1.600era arte	1.400era arte	
<b>2</b>	1.600dik 2.000era	1.600era arte - R1A	

<b>3</b>	2.000etik gora	1.600dik 2.500era - R1B - R2B	
<b>4</b>	2.000etik gora(4x4)	2.500etik gora - Kit Car 1.600 - S1.600 - R2C - R3C - R3D - R3T	A2 (Kopak 2.000arte)
<b>5</b>	S2.000	Kit Car 2.000, Gr B, WRC eta GT	A2 ST - A2 (Kopak 2.000etik gora)
<b>6</b>			CM Ibilgailuak
<b>7</b>			CN - C3 - Formulak 2000arte
<b>8</b>			Ibilgailu Klasikoak

**Junior: 1 eta 2. Mailak 1600 cm3 arte.**

#### **4. Artikulua- INSKRIPZIOKO ESKUBIDEAK ETA SARIAK**

**4.1.** Inskripzioko eskubideak: 2009 Mendirako Agindu Nagusien 5.2 Art. Aplikatuko da.

**4.2.** Sailkatzen diren denen **6.000 €** banatuko dira proportzionalki, **NH**ak barne, baldin eta probaren araudiak onartzen baditu.

**4.2.3.** Errekorra jaisteagatik = **90 €**.

#### **4.3. Lehiaketari dagozkion amaiera-sariak**

Amaiera-sari hauetara sarbidea izateko, gutxienez, puntuagarriak diren proben **% 60an** irteera hartu beharko da. Hamartarrak gorantz biribilduko dira.

#### **5. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIEK BETE BEHARREKO ARAUAK**

2008 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren Agindu Nagusiei dagokien 17. Art. Aplikatuko da.

#### **6. Artikulua. AZTERKETAK**

##### **6.1. Orokortasunak**

**6.1.1.** Taldeek kronometratutako tartea klub antolatzaileak ezartzen dituen egunen zehar soilik ezagutu ahal izango dute.

Ordutegi-programa probari dagokion araudi berezian argitaratuko da.

**6.1.2.** Automobil "erbiak" debekatuta daude, proban inskribatutako beste lehiakide baten automobila bada ere.

**6.1.3.** Azterketen zehar taldeek indarrean dauden Trafikoko arauak hertsiki bete beharko dituzte.

**6.1.4.** Antolatzaileari talde partaide bakoitzari aztergai den ibilgailuan jartzeko eranskailu bat ematea gomendatzen zaio.

## **6.2. Azterketako ibilgailuen muga**

- 6.2.1.** Erabat debekatuta dago azterketak lehiaketako ibilgailuarekin burutzea.
- 6.2.2.** Ibilgailu aztergaiak hertsiki seriekoak izan beharko dute.
- 6.2.3.** Ibilgailuak ezingo du publizitaterik nahiz eranskailurik eraman.
- 6.2.4.** Pneumatikoeak hertsiki seriekoak izan behar dute, lehiaketako pneumatikoeak erabat debekatuta daudelarik.
- 6.2.5.** Ihes-hodiko isilgailua erabilera nahiz funtzionamenduari dagokionean behar bezala egongo da.
- 6.2.6.** Debekatuta dago ibilgailu aztergaien irrati-instalazioak nahiz antenak eramatea.
- 6.2.7.** Antolatzaileak eskuratuko balu, ibilgailu aztergaiak aurreko kristalaren eskuineko goialdean azterketa-eranskailu bat jarrita eramango dute.

## **6.3. Kontrola eta zigorrak**

- 6.3.1.** Organizazioak Epaileak izendatu ahal izango ditu kontrolak burutzeko, probaren araudi berezian agertzen direnez gainera, eta Gobernuko nahiz Bertako Agintariek 6. artikulua osoa kontrolatzeko burutu ahal dituztenez gainera, azterketekin lotutako araudia betetzeko helburuarekin, edozein kasutan indarrean dauden Trafikoko Arauak hertsiki bete behar dira.
- 6.3.2.** Lehen aipatutako epailetako edozeinek burututako edonolako salaketak, ondorengo zigorra izango du barne:
  - 1. arau-haustea: 3 min. eta 60 Euro.
  - 2. arau-haustea: 5 min. eta 100 Euro.
  - 3. arau-haustea: 10 min. eta 150 Euro.Zigor hau Lehiaketa osoan zehar metagarria izango da eta Kirol-Komisarioek bere lehenengo bileran adieraziko dute, probarekin hasi aurretik.

### **Hurrengo Arau-haustek ondorengo baremoaren arabera zigortuko dira:**

#### **Aurreko arau-haustearen bikoitza.**

- 6.3.3.** Zigortutako taldeak erabaki hau apelatu nahiko balu, horrek ez du zigorraren kautelazko bertan behera uztea suposatuko.

## **7. Artikulua. EGIAZTAPENAK**

- 7.1.** Bai Administrazio-Egiaztapenerako eta bai Teknikoetarako ordutegi-kontrol bat aplikatuko da proba bakoitzaren araudi berezian aurkeztutako taulari jarraiki, inskribatuen zerrendaren argitalpena burutzen denean.
- 7.2.** Ordutegi horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira, partaideren batek beteko ez balu arau-hausleari 60 Euroko zigor ekonomiko bat ezarriko zaio.
- 7.3.** Administrazio-egiaztapenei dagokionean nahitaezkoa izango da ondorengoak aurkeztea:
  - a) Lehiakidearen baimena.**
  - b) Partaidearen baimenak.**
  - c) Gidariaren gidabaimena.**
- 7.3.** Irteera baino lehen burututako egiaztapenak erabat izaera orokorrekoak izango dira.

- 7.4.** Taldeak, egiaztapen teknikoei dagokionean, ibilgailuaren homologazio-fitxa aurkeztu beharko du.
- 7.5.** Kirol-Komisarioek hauetarako aurreikusitako ordutegitik kanpo egiaztapen bat baimendu izango balute (borondatez kanpoko arrazoiengatik, lehiakidearen aldetik behar bezala justifikatuta), talde arau-hauslea zigortu ahal izango da.
- 7.4.** Irteera baino lehen burututako egiaztapenak erabat izaera orokorrekoak izango dira.
- 7.6.** Taldeak, egiaztapen teknikoei dagokionean, homologazio-fitxa aurkeztu beharko du.
- 7.7.** Kirol-Komisarioek hauetarako aurreikusitako ordutegitik kanpo egiaztapen bat baimendu izango balute (borondatez kanpoko arrazoiengatik, lehiakidearen aldetik behar bezala justifikatuta), talde arau-hauslea zigortu ahal izango da.

## **8. Artikulua- PUNTUEN ESLEIPENA.**

**8.1.** Proba puntuagarri bakoitzean ondorengo sailkapenak ezarriko dira:

- Scratch Sailkapen Nagusia, onartutako ibilgailu guztientzat.
- Sailkapen Nagusi bat, Maila bakoitzarentzat.
- Sailkapen Nagusi bat, Junior mailako Sarirako

**8.2.** Puntuen esleipena. Kontuan izanik Txapelketa hau hautatzen ez duten partaideek ez dutela puntuatzen eta puntuaketarik ez dutela blokeatzen, jarraian adierazten den bezala esleituko dira:

**8.2.1.** Mendiko Gidarientzako Gipuzkoako Txapelketarako:

### **Scratch Sailkapen Nagusia:**

<b>Postua</b>	<b>1º</b>	<b>2º</b>	<b>3º</b>	<b>4º</b>	<b>5º</b>	<b>6º</b>	<b>7º</b>	<b>8º</b>	<b>9º</b>	<b>10º</b>
<b>Puntuak</b>	<b>20</b>	<b>15</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>8</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>1</b>

### **Mailen araberako sailkapena:**

<b>Posición</b>	<b>1º</b>	<b>2º</b>	<b>3º</b>	<b>4º</b>	<b>5º</b>	<b>6º</b>
<b>Puntos</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>8</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>2</b>

**8.2.3.** Junior mailako Gipuzkoako Sari honetarako, Sari honetako ibilgailuek soilik osatutako sailkapen burututakoan, puntuak ondoren adierazten den bezala esleituko dira:

**Junior mailako Sailkapen Nagusia:**

<b>Postua</b>	<b>1º</b>	<b>2º</b>	<b>3º</b>	<b>4º</b>	<b>5º</b>	<b>6º</b>	<b>7º</b>	<b>8º</b>	<b>9º</b>	<b>10º</b>
<b>Puntuak</b>	<b>20</b>	<b>15</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>8</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>1</b>

**8.3.** Proba bateko berdinketak.

Lasterketan berdinketa gertatzen bada, hauen puntuak eta sariak batuko dira, eta denbora berdina lortu dutenen artean atal berdinetan zatituko dira.

**9. Artikulua. SARIAK ETA TXAPELAK**

**9.1.** Kirolzalea sari eta txapel banaketan bertan egotea nahitaezkoa da, bertaratzen ez bada, horrek dagokion saria galtzeko bidea emango du.

**10. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIAK**

Mendiko Gipuzkoako Txapelketa ondorengo egutegiari jarraiki ospatuko da:

6 ekaina	Gorla Igoera
20 ekaina	Aia Igoera
4-5 uztaila	Arrate Igoera
5 Iraila	Antigua Igoera
26 Iraila	Udana Igoera
25 Urria	Urraki Igoera

**11. Artikulua- ATXIKI BEHARREKO EMAITZAK**

Gidarien Gipuzkoako Txapelketarak eta Junior mailako Mailen arabera Gipuzkoako Sarietzako atxiki beharreko emaitza-kopurua, lehiatutako proba guztiak ken bat izango da.

Txapelketaren amaieran berdinketa gertatzen bada, hau 2008 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge-etako Agindu Komunei dagokion 16. artikuluari jarraiki erabakiko da.

Proba batean kanporatze bat ezin ahal izango da emaitza bezala deskontatu.